

## XIRIMIRI AULA

Eguzki ill-orizta erori  
zen argi ximel, motelez mendi atzera.

Arrats eroriaren karmin-morezko odei urra-  
ziran itzaldu [tuak  
laiñoaren laztan epelera.

Au arrats me ta euribera...!

Au ikuspegiaren naigabe itun ta tristura...!

Intziri ixillean,  
tanta xeetan goitikan beera,  
alako otoitz aul, xamur  
baten eran, zintzilik zetorren xirimiria.

Begira nuen zumardira,  
ango tristura bustira...

Txoriñoren txinta kixkurrak  
ziran biur negarti, belaxkak;  
arratsaren apaindura  
moteldu, gauzak oro itzaldu...

Au giro tristurati, illun,  
ta goibeltsua...!

Au arratsaren negar-gura...!

MUXIKA'TAR LUIS

## EZER EZAREN SAMIÑA

Munduan nabaitzeka atsegingarririk,  
negarrezko aran au, ezin ukaturik,  
izadiak gaitula bertara loturik,  
bizitza ba-dijoa alaitasun barik.

Inguruko bideok arantzaz beterik  
mundu lege sakailak itun gaitularik,  
jaiotza zertarako, ulerkaitz delarik;  
ez bai dugu arkitzen iñun gozamenik.

Zentzunagan ez dugu samiña besterik.  
Izadiak bere muiñak dakuskigu utsik:  
ezer ezetik ez dugu egundo zorionik,  
ez bai dugu arkitzen mingarri eztanik.

## OTSALAR

## KANTARI

Bidez nijoa	gure abenda
kantari,	mintzoari,
gogoa dala	ene ametsok
ameslari.	igorri...,
Erriz-erri,	arbasoen
mendiz-mendi,	euskerari;
Euskalerritik	batzuetan
gaindi;	alai,
maitatuz ene	eta, urrengokoan
aberri,	itunki.
euskotarrena dan	Maitasunezko
tegi,	opari,
gogoz mindurik	dalako euskoen
eztiki	oiñarri.
biurtzeraiño	Bidez nijoa
olerkari.	kantari,
Biotzez-biotz	gogoa dala
kuttunki,	ameslari.

## OTSALAR